# eusfit mugiment

## 10 urrats nire ikastetxeak Eusfit Mugiment sisteman parte har dezan

1 **Eusfit Mugiment ezagutu**

Sasoi fisikoaren monitorizazio sistema da. Ikasleek 6 proba pasako dituzte urtero gorputz hezkuntzako irakasleak gidatuta. Bukaeran irakasle eta familiek ebaluazio txostenak jasoko dituzte. **Ikusi bideoa**.

2 **Izena eman**

Berritzegune Nagusiak ikastetxeetara bidalitako mezu baten bidez irekiko da izen-ematea.

3 **Informazio bileretan parte hartu**

Ikasturtean zehar gutxienez 2 bilera egingo dira. Bata sistema aurkezteko eta hasierako zalantzak argitzeko eta bigarrena emaitzak aztertzeko eta ebaluazio egiteko.

4 **Materiala ikastetxean jasotzea**

Probak garatzeko beharrezkoa den **materiala** ikastetxeetan jasoko da.
Jarraitzeko konpromisoa badago, materiala ikastetxean geldituko da.

5 **Sasoi fisikoak osasunarekin duen erlazioa ikasleekin landu**

Ikasleei sistema aurkeztu, sasoi fisikoa eta osasunaren arteko lotura erakutsi, estigmatizazioa saihestu, antolatzeko ardurak banatu.

6 **Gurasoen baimena jaso**

Seme-alabak parte hartzeko eta datuak aplikaziora igotzeko **baimena** eskatzen zaie gurasoei.

7 **Testak pasatzeko protokoloa ulertu**

**Probak egiteko eta erregistratzeko jarraibideak** irakurri.

8 **Probak egin**

Urria eta maiatza bitartean **probak pasatu** ikasleei.

9 **Emaitzak aplikazioan sartu**

Ikasleei egindako proba guztien emaitzak **Eusfit Mugiment aplikazioan** sartu. Aplikazioan sartzeko irakasle bakoitzak **XLNETS** erabiltzailea beharko du (laguntza eskatzeko CAUra deitu 945 207 256).

10 **Emaitzak aztertu**

Ebaluazio txostenak aztertu eta ikasleekin komentatu. Ikasgaiaren programazioa eta saioetako edukiak planifikatzeko erabilgarriak izan daitezke.

## Gurekin harremanetan jartzeko:

**mugiment@mugiment.eus**